

# MIDASek Donostian egingo du batzar nagusia, datorren ekainean

Elkartea osatzen duten 26 egunkariak beren komunitatearen eta lanaren berri emango dute

A. IBAN - J. GOIKOETXEA - DONOSTIA

Europar hizkuntza gutxituetan argitaratzen diren egunkariaren elkartea da MIDAS. Elkarteko zortzi egunkariaren ordezkariak izan dira aste honetan Euskal Herrian, MIDASen lehen mintegian. Euskarazko prentsa omentzeko, *Egunkaria*-ren itxiera salatzeko eta BERRIARI ongi-etorria emateko antolatu dute mintegia bertan. Izan ere, *Euskaldunon Egunkaria* MIDASeko kidea zen elkartea sortu zenetik (duela hiru urte) eta BERRIA ere bada. Astebetean elkarteko kideen esperientziak trukatu eta Euskal Herriko errealitatea hobeto ezagutu dute.

Bilera ugari egin dituzte Euskal Herriko hainbat eragilerek eta bertako zenbait esperientzia ezagutu dituzte. Gunther Rautz MIDAS elkarteko idazkariak azpimarratu duenez, mintegia «lehen urratsa» izan da: «Gure helburua sare bat jostea da elkarren berri jaso eta zabaltzeko. Oso interesgarria da sareak egitea. Informazioa lortzea eta zabaltzea errazten du».

MIDASeko kideek Euskal Herriko hainbat gizarte eragile bisitatu dituzte aste honetan: Kontseilua, Behatokia, Eusko Jaurlaritza, Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Gure Irratia, Seaska, Batera, Torturaren Aurkako Taldea, AEK, EITB... Horietan guztietan ikusitako eta ikasitako gauza aipagarrienetakoa da, Gunther Rautzen iritziz, Administrazioa langile askok euskara ez jakitea: «Harrigarria da hainbat lurraldetan gobernu autonomikoak izan arren, epailea izateko eta administrazioan bestelako lanpostuak lortzeko elebitasuna ez eskatzea. Hego Tiroidik nator ni, eta han elebidunak behar dute izan administrazioan lanpostua nahi dutenek».

Hizkuntza gutxituetan argitaratzen diren egunkariaren arteko



EUSKAL HERRIA bisitatu duten MIDAS elkarteko kideak iragan asteazkenan, Gure Irratiaren egoitzan. BOB EDME

sarea osatzeko asmoz, MIDASek bigarren urrats bat egingo du datorren ekainean, hori ere Euskal Herrian: Donostian egingo dute elkartearen batzar nagusia eta MIDAS osatzen duten 26 kideek parte hartuko dute bertan. «Kide bakoitzak bere komunitatearen eta lanaren berri emango du bertan», aurreratu du Rautzek. Horrez gain, lauzpabost egunkari elkartean sartzeko eskaerak aztertuko dituzte. Rautzek zehaztu duenez, «Baltikoko estatuetan errusieraz argitaratzen diren bi egunkari, Belgikan alemanez egiten den bat, Errumanian hungarieraz egiten den beste bat...», dira hautagaiak.

Hautagaiak hainbat ezaugarri bete behar dituzte MIDASen sartu ahal izateko: astean gutxienez hiru egunetan argitaratu behar

## Datua

# 500.000

MIDASen barruan dauden 26 egunkariak 500.000 irakurle baino gehiago dituzte. Lau edo bost egunkarik egin dute elkartean sartzeko eskaera.

dute eta edukiaren erdia gutxienez hizkuntza gutxituan idatzi behar dute. Europar elkartean sar daitezkeen egunkari asko daudela azpimarratu du Rautzek: «Egunkari elebidun asko dago. Duela gutxi sortu da lehen-dabiziko finlandierazko egunkaria Suedian, badelako finlandiar jatorriko gutxiengo bat Suedian, eta beraiekin harremanetan jarri

gara. Galesen ere, gaelikozko egunkari bat egiteko egitasmoa daukate. Badute telebista, eta asteakariak, baina egunkaririk ez. Galestarrek banaketan daukate arazoa, errepiderik ez baitago herri guztietara heltzeko».

## MIDAS, Europar eredu

Europako Parlamentuan duela gutxi egin dute Gutxiengoen Txostena, Rautzek adierazi duenez, «gutxiengoekiko etorkizuneko politikek nolakoak izan behar harko luketen azaltzeko». Eta MIDAS aipatzen dute txostenean, eredu gisa, «gutxiengoen artean elkarlana eta sareak jostea bultzatzen duelako».

MIDASek oso harreman ona du EBLUL Europako Hizkuntza Gutxituen Bulegoarekin.

## 'EGUNKARIA'-REN ITXIERA

### Gertaeraren zabalkunde lana munduan

MIDASeko kideek berehala jaso zuten Egunkaria-ren itxieraren berri. Informazioa jasotzeaz gain, zabaldu ere egin zuten beren egunkariaren bitartez. Gunther Rautz MIDASeko idazkariaren esanetan, «*Egunkaria*-ren itxiera gertatu zenean europar askok izan zuten horren berri, horrelako arazoetaz hitz egiten duten egunkari gehiago daudelako: Finlandian, Hungarian, Errumanian...».

Horrez gain, Europako Parlamentuan ere eman zuten itxieraren berri. «Bertan genituen harremanak baliatzen hasi ginen», dio Gunther Rautz elkarteko idazkariak. Europako Parlamentuan itxieraren berri emateko eskaera egin zuten. Espainiaren enbaxadetera ere gutunak bidali zituzten. Jaso zuten erantzuna, ordea, adierazgarria izan zen: «Espainiaren barne arazo bat zela kontu hura». MIDASek itxieraren berri eman zion halakoak gerta ez daitezkeen kontrolatzeko eta adierazpen askatasuna babesteko New Yorken dagoen batzorde berezi bati.

MIDAS elkartearen webgunean sartuz gero ([www.midas-press.org/index](http://www.midas-press.org/index)), *Egunkaria*ren mantxeta eta kartzelan dagoen Iñaki Uriak *Egunkaria*-ko kontseilari ordezkariaren argazkia (MIDASeko zuzendaritza taldeko kidea da) ageri dira. Nahita. «*Euskaldunon Egunkaria* agertzea sinbolo bat da», dio Gunther Rautzek. «Iñaki Uriak elkarteko kide da eta *Egunkaria* auzia ez da bukatu. BERRIA egunkaria, berriz, euskal komunitatearen indarraren erakusgarri da».

## 'BERRIA'-K KOMERTZIAL BAT BEHAR DU OARSOALDEKO ESKUALDEAN (Erref.: Oarso)

### Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Lan kontratua, Gizarte Segurantzarekin.
- Soldata finkoa eta komisioak.

### Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

### Kontuan hartuko da:

- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali martxoaren 5erako [gb@berria.info](mailto:gb@berria.info) helbide elektronikora edo beste helbide honetara: **BERRIA** Giza Baliabideak Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain.

Ez ahaztu erreferentzia zehaztea.

**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA

## GRADUONDOKO PROGRAMAK SEGURITATE INFORMATIKOAN ADITU IZATEKO IKASTAROA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

### HELBURUA

Ikastaro honen helburua enpresaren segurtate informatikoa lantzea da; ariskuak eta hartu beharreko neurriak aztertzen ditugu, sistemen funtzionamendu egokia bermatzeko eta sistematik babesteko.

### DATA ETA ORDUTEGIA

2004ko martxoaren 8tik uztailaren 20ra  
Asteleheneretan eta asteartetan, 08:00etatik 14:00etara

### LEKUA

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa

### PROGRAMA

- 1.-Segurtate informatikoa kudeatzen jakitea
- 2.-Segurtate fisikoa
- 3.-Segurtate nodo eta sareetan

- 4.-Segurtatearen ikuskaritza
- 5.-Gorabeherak kudeatzea

### IRAUPENA

200 ordu

IZENA EMATEKO EPEA  
2004ko otsailaren 27a

INFORMAZIO GEHIAGO

Tel.: 943 71 21 83 • Posta elektronikoa: [imangana@eps.muni.es](mailto:imangana@eps.muni.es) • <http://iraunkor.eps.mondragon.edu>